

MUNDUAK GUZTIONTZAT BEHARKO LUKE

CHERNOBILEN LAGUNAK

Anna San Joan jaien inguruan etortzen da normalean Chernobiltik Euskal Herrira. Aurten, apirilean etorri da bere anaia Misharekin. Gerratik ihesi etorri dira.



BIZIPOZA

elkarlanean



Anna, maitea, oso arraroa da zuk goserik ez izatea.

Misha, udan zure arreba Anna gure etxera etortzen denean, jan eta jan egiten du.

Bidaia gogorra izan da eta baita bidaiaren aurrekoa ere. Sabela uzkurtuta daukagu.



Hilabete baino gehiago eman dugu etxeko sotoan ezkutatuta. Aita gerrara joan da eta amak ezin izan zuen gurekin etorri. Gure etxean geratu nahi zuen, aitaren zain.



Gerra filmetan baino ez genuen ikusi guk. Eta, bat-batean, gure etxean sartu zen gerra.

Gu pozik bizi ginen. Chernobileko zentral nuklearraren istripuaz geroztik, lurra eta ingurua kutsatuta daude. Horixe zen gure kezka nagusia.



Otsailaren 24an, soldadu errusiar gazte batzuk agertu ziren herrian. 18 urte zituzten eta maniobretara zihoazela uste zuten. Gerra lehertu zen.




Hilabete baino gehiago eman dugu sotoan ezkutatuta; argindarrik gabe, ur justuarekin, telefono eta Interneteko konexiorik gabe... etxeko kontserbak janez egin dugu aurrera.




Behin etxe ondoko baso batean Internetera konektatzen saiatu nintzen, baina ez nuen lortu. Sekulako beldurra pasatu nuen.





Guretzat gogorra izan da zuen berri ez izatea. Hilabete eta bi egun eman ditugu zuen berririk izan gabe.

Eta telebistan ikusi ditugun irudiak oso gogorrak izan dira. Gerra filma bat ematen zuen.



Niri ez zaizkit inoiz gerrako filmak gustatu. Orain, gutxiago. Hotza, gosea, beldurra... azalean itsatsita geratu zaizkigu.

Gure etxea ez dute bonbardatu, baina ahal duten guztia puskatu eta lapurtu dute. Gure etxeko leihotik ikusten den herria, ez da gure herria. Dena aldatu da.



Orain etxean zaudete, hau zuen Euskal Herriko etxea da. Saiatuko gara amari deitzen? Badirudi pixkanaka konexioak hobetzen ari direla Ivankiv inguruan.

Bai, bai, ama ikusi nahi dut.


Ama, ikusten zaitugu! Zer moduz?

Teper krashche, pobachyvshy tvoyu posmishku.

Zer esan du?



Orain, gure irribarrea ikusita, hobeto dagoela.



Gipuzkoako zenbait familiak osatua dago eta helburu bat dute: 1986an Chernobileko zentral nuklearrean gertatutako hondamendia dela-eta ondorio erradioaktiboak jasaten ari diren umeen osasuna hobetzen eta suspertzen laguntzea.

17 urte bitarteko haurrentzat aldi baterako egonaldiak antolatzen dituzte udan Euskal Herrian. Egonaldi hauei esker umeen erradioaktibitatearen maila %30 eta 40 bitartean jaisten dela diote adituek.



Harrera egiten duen elkarte izatetik, guda batean murgilduriko elkarte bihurtu da bapatean eta era behartu batean. Orain gerrak sortzen dituen egoerak kudeatzen saiatzen dira egunez egun, haurrei eta familiei irtenbideak eta laguntza humanitarioa ematen.



HARREMANAK

Txara 1 - Gizagune, Paseo Zarategi 100, 20015 Donostia
info@chernobilenlagunak.org
 Telefonoa: 689 58 62 77